

SARRERA

Auzoz auzoko 2.fasea bukatu delarik eta balorazio bat egiteko garaian, esan, oso positibotzat jotzen dugula lehenengo aldiz martxan jarri dugun parte hartze prozesu hau. Udala eta herritarren arteko Parte-Hartze eredu hau berria izan da bai herritarrentzat baita Udalarentzat ere, hala ere, bien aldetik oso aberasgarria izan dela deritzogu. Herritarrek benetan eskertu baitute auzora gerturatu eta beraiek ikusten dituzten beharrak Udalari jakinarazteko eman zaien aukera eta Udalak era berean diagnostiko bat osatzea lortu du eta hainbat datu eskuartean ditu hurrengo urteetarako.

Lehenengo eta bigarren bileretan zehar erabili den dinamika ere berria izan da, bizilagunek beraien kezka eta beharrak konpartitzeko talde txikietako dinamika erabili da eta emaitza onak eman dituelakoan gaude. Talde txikietan jarriz, bizilagunek beraien proposamenez hitz egin eta ideia berriak eta soluzioez eztabaidatu dute eta auzotarren arteko harremana ere sustatzeko bide bat izan delakoan gaude.

Herritarren erantzuna ona izan da orokorrean, asistentziari begiraturaz gero 312 pertsonak hartu dute parte egin diren 14 bileretan eta herriko diagnostiko txukun bat egitea lortu da.

1.bilera errondan ideia, kezka, arazo, proposamen etb-ak jaso ziren oso gogotsu azaldutako herritarren artean. Ondoren hauek Udaleko eremu ezberdinetan banatu ziren ondorengo lanketa baterako.


2.fasean lehentasunak ezarri dira auzotarren artean eta lehentasun hauek izango dira aurrerantzean udalaren bidean era batean edo bestean eragingo dutenak.

Gaur egungo eskaerak nahiko indibidualak ziren eta bilera hauek eskaera horiek konpartitu eta komunean jartzeko modu bat izan dira. **Azpimarratu nahiko genuke, pauso garrantzitsua izan dela udala eta herritarren arteko komunikazioa bermatu eta harremana sustatzeko, hau da, udalak lana egiteko beste modu bat uztartu nahi duela herrian, herritarrekin batera lan eginaz eta elkarrekin erabakiak hartuaz.**

LEHENENGO FASEKO PARTEHARTZAILE KOPURUA

- Asistentzia auzoen arabera:

ZABALETA ZABALETA BERRI GOIEGI
OZTARAN ZATARAIN KAXKARRO
ORIA BASAUNDI ANTXISU
ZUMABURU GOIKALE
ATSOBAKAR URBARTE
SASOETA LOIDIBARREN
ERDIGUNEA



Lehenengo aldia da horrelako ekimen bat egiten dela eta oso positibotzat jotzen dugu asistentzia. Herritarren erantzuna ona izan da, asistentziari begiratzuz gero 184 pertsonak egin diren 7 bileretan parte hartu dute.

Bileretara etorri diren gizonezko eta emakumezkoen kopurua oso antzeko izan da, auzoaren arabera aldatu egin da baina batz bestekoa esan daiteke kopuru antzekoa izan dela.

Adinari dagokionez, bileretara etorri diren gehiengoaren adina 50 urtetik gorakoa izan da.


Lehenengo bilera hauek, udalaren aldetik elebidunak izan dira. Auzo bakoitzaren arabera, euskararako edo gaztelararako joera izan da. Hala ere, aurreko erronda bezala euskaraz emandako ideiak pertsona berak edo guk itzuli ditugu denek ideia guztiak ulertzen zituzten.

• **Eremuak.**

Bileretan diagnostikoa egin ahal izateko bost eremutan oinarritu gara:

- HIRIGINTZA (azpiegiturak eta mugikortasuna)
- ONGIZATEA (gizarte-ongizatea, hiri zerbitzuak, ingurumena)
- EKONOMIA (garapen ekonomiko eta komertzioa)
- KULTURA (euskara, hezkuntza, kirola)
- PARTAIDETZA (auzogintza eta komunikazioa).


	HIRIGINTZA	ONGIZATEA	EKONOMIA	KULTURA	PARTAIDETZA
ZABALETA ZABALETA BERRI GOIEGI	8	10	1	5	4
OZTARAN ZATARAIN KAXKARRO	10	11	1	3	
ORIA BASAUNDI ANTXISU	14	15	3	12	8
ZUMABURU GOIKALE	15	17	5	11	4
ATSOBAKAR URBARTE	11	14	1	8	3
SASOETA LOIDIBARREN	11	13	3	5	4
ERDIGUNEA	11	26	4	8	3
GUZTIRA	80	106	19	52	26



Guztira 283 gabezia jaso dira. Gabezia gehienak, ongizate (gizarte-ongizatea, hiri-zerbitzuak, ingurumena) eremukoak izan dira. Jarraian hirigintza (azpiegiturak eta mugikortasuna) eremukoak eta kopuru parekatuan ekonomia (garapen ekonomiko eta komertzioa), kultura (euskara, hezkuntza eta kirola) eta partaidetza (auzogintza eta komunikazioa) eremuak. Ondorengo hauek dira auzo ezberdinetan errepikatu diren gabezi, kezka eta proposamenak:

HIRIGINTZA	ONGIZATEA	EKONOMIA	KULTURA	PARTAIDETZA
Errepideen konponketa.	Iturri gehiago jartzea.	Komertzio txikia sustatu	Kirolgune ezberdinak jartzea.	
Bidegorriak.	Zaborraren inguruan arazo ezberdinak.		Kiroldegiak opor egun gehiegi dituela eta zaharkitua geratu dela..	
Plazaolako bidea luzatu Urnieta eta Andoain arte	Lorezaintzaren inguruan arazo ezberdinak.			
Leku edo plaza bat aterpearekin.	Arratoiak			
Aparkamendu gabezia.	Konpostajerako kutxak.			
N1eko pantailen luzapena.	Parke ezberdinen konponketa.			
Ospitaleetako geltokia herrian zehar jartzea.	Argi falta.			
	Auzoko garbiketa.			
	Hiribusaren zerbitzua.			
	Txakur kaken arazoari soluzioa ematea.			
	Udaltzainen aldetik kontrol gehiago			
	Baxuetako egoerak erregulatu (pintada, haurren jolasak...).			

Bileretan banatutako balorazio orrietan oinarrituta, hurbildu diren auzotarren iritzia positiboa dela esan dezakegu.




- Bilera ondoren:**

Gaia zegokion departamentuarekin bildu eta gabezia kezka eta proposamenak hiru multzotan sailkatu zituzten.

BIGARREN FASEKO PARTEHARTZAILE KOPURUA

- Asistentzia auzoen arabera:

ZABALET ZABALET BERRI GOIEGI
OZTARAN ZATARAIN KAXKARRO
ORIA BASAUNDI ANTXISU
ZUMABURU GOIKALE
ATSOBAKAR URBARTE
SASOETA LOIDIBARREN
ERDIGUNEA



Barneko errozkilla 1. bileraren errondari dagokio eta kanpokoak bigarrenari.

Esan beharra dago bigarren erronda honetan, jende gutxiago azaldu dela espero zen moduan, baina, aurrekora etorri ez zen jendea hurbildu da eta hau oso positibotzat jotzen dugu.

Bileretara etorri diren gizonezko eta emakumezkoen kopurua oso antzeko izan da, auzoaren arabera aldatu egin da baina batzuetan bestekoa esan daiteke kopuru antzekoa izan dela.

Adinari dagokionez, bileretara etorri diren gehiengoaren adina 50 urtetik gorakoa izan da.

Lehenengo bileretan bezala, bigarren hauek ere, elebidunak izan dira. Auzo bakoitzaren arabera, euskararako edo gaztelerarako joera izan da. Hala ere, aurreko erronda bezala euskaraz emandako ideiak pertsona berak edo guk itzuli ditugu denek ideia guztiak uler zitaten.

LEHENTASUNAK KOLOREKA

- **Proposamenen sailkapena azaldu koloreka.**

Lehenengo bileretan jasotako ideia guztiak zegokien departamentuetara bideratu genituen. Departamentu bakoitzean, ondoren multzokatzea kontutan hartuta multzo ezberdinetan sailkatu dituzte. Bigarren bileran sailkapen honetan oinarrituta auzotarren lehentasunak jarri dituzte.

BERDEA: Udalak kompetentzia osoa du eta hauei epe motzean (urtea amaitzeraino) erantzun bat ematea konprometitzen da. Erantzuna ez da zertan exekuzioan bakarrik ulertu behar. Batzuk aurrekontu eta lanketa gutxiko gaiak dira, berehala egitekoak. Beste batzuk ez hain berehalakoak. Hauen artean auzolanean egitekoak aurkituko ditugu.

LARANJA: Udalak kompetentzia osoa du. Baina proiektuaren tamainagatik ezin du berehala erantzun. Laranja sailkatutako gaiak landuko dira eta beraien artean lehentasunak ezarriko dira. Aurrekontu bat eskatzen du eta lanketa sakona. Lanketak herritarrekin, HPHLak (Herritarren Parte-Hartze Laborategiak) sortuz egin daitezke, eta prozesuaren 3. fasean aurkeztuko lirateke. Bertan, udalak diru partida finko bat erreserbatu beharko luke eta auzotarrek erabaki beharko lukete zein proiektu egingo diren. Horrela hurrengo urteko aurrekontuan sartuko lirateke eta hurrengo urtean exekutatu.


GORRIA: Udalak ez du kompetentzia osoa, ezin du erabakia exekutatu. Beste instituzio edo elkarteri dagokio gaia guztiz edo partzialki. Hala ere, gorriz sailkatuta dauden gaiak landuko dira eta beraien artean lehentasunak ezarriko dira. Horrela udalak dagokionari zuzenduko zaio eskaera ofizial bat eginez, proiektuaren alde bultzatuz.

- Auzoetan multzo bakoitzean ateratako kopuruak.

	MULTZO BERDEA	MULTZO LARANJA	MULTZO GORRIA
ZABALETA ZABALETA BERRI GOIEGI	12	10	7
OZTARAN ZATARAIN KAXKARRO	10	7	11
ORIA BASAUNDI ANTXISU	23	20	11
ZUMABURU GOIKALE	28	19	7
ATSOBAKAR URBARTE	18	17	5
SASOETA LOIDIBARREN	25	10	4
ERDIGUNEA	26	19	11
GUZTIRA	142	92	53

- Zein eremuri eman zaion garrantzia.

Auzo guztietan lehentasun bezala atera direnak ongizate (gizarte-ongizatea, hiri-zerbitzuak, ingurumena) eremukoak izan dira. Jarraian hirigintza (azpiegiturak eta mugikortasuna) eremukoak eta kopuru parekatuan ekonomia (garapen ekonomiko eta komertzioa), kultura (euskara, hezkuntza eta kirola) eta partaidetza (auzogintza eta komunikazioa) eremuak.



- **Auzoetan proposamenei jarritako lehentasunak:**


ZABALETA-GOIEGI	ZABALETA-GOIEGI
1- Informazio panelak jartzea	1- Poner paneles de información.
2- Hiribusak ikastetxeetako sarrera irteerekin bat egitea.	2- Que el Hiribusa coincida con el horario de salida y entrada de los colegios.
3- Auzoko garbiketa.	3- Limpieza del barrio.
1- Aldapako espaloia estua da.	1- La acera de la cuesta es estrecha.
2- Autobus geltokietan markesina jartzea.	2- Poner marquesinas en las paradas.
3- Kirol gunea baten beharra.	3- Necesidad de una zona deportiva.
1- Nleko pantailen luzapena.	1- Poner en más sitio pantallas de la NI.
2- Konpostajerako gunea gaizki erabilia.	2- Mala utilización del área de compostaje.
3- Etxeetako zaborra bere lekuan uztea.	3- La basura de las casas dejarla en su sitio
BASAUNDI-ORIA-ANTXISU	BASAUNDI-ORIA-ANTXISU
1- Hiribusaren zerbitzua.	1- Servicio del autobús urbano.
2- Etxeetan igogailuak jartzeko erraztasuna	2- Facilidades para poner ascensores en los portales.
3- Oria eta Zelaialdeko parkea konpontzea.	3- Arreglar el parque de Oria y Zelaialde.
1- Txitxardin bidegurutzean kamioiekin arazoak.	1- Problemas con los camiones que entran por Txitxardin.
2- Leku edo plaza bat aterpearekin.	2- Poner una plaza o un lugar cubierto.
3- Zelaialden aldapa eta eskailera asko daude pertsona helduentzat.	3- Hay muchas cuestas y escaleras en Zelaialde para personas mayores.
1- Trena Oriaraino iristea.	1- Que el tren llegue hasta Oria.
2- Ospitaleetako geltokia Orian izatea.	2- Poner parada de los Hospitales en Oria.
3- Nleko pantailak auzoraino jartzea.	3- Poner las pantallas de la NI hasta Oria.
OZTARAN-ZATARAIN-KAXKARRO	OZTARAN-ZATARAIN-KAXKARRO
1- Txakur kaken arazoari soluzioa ematea.	1- Problemática de los excrementos de los perros.
2- Miracampus bidean argia falta da.	2- Falta luz en el camino de Miracampus.
3- Aduriz zubia pasa ondoren dagoen bidetxurra ondo jarri.	3- Arreglar el camino que hay después del puente Aduriz.
1- Aparkamendu gabezia.	1- Falta de aparcamientos.
2- Kale nagusia estuegia da.	2- La Calle Mayor es muy estrecha.
3- Komertzio txikiak sustatu.	3- Fomentar el pequeño comercio.
1- Ospitaleetako autobusak geltoki gehiago.	1- Poner paradas del autobús de los Hospi.
2- NI pantailak jarri.	2- Poner pantallas en la NI.
3- Oztarango ikastetxeari erabilera eman.	3- Dar otro uso a la escuela Oztarán.
ZUMABURU-GOIKALE	ZUMABURU-GOIKALE
1- Txakur kakak.	1- Problemática de los excrementos de los perros.
2- Zikinkeria eta arratoiak.	2- Suciedad y ratas.
3- Udaletxeko espaloia estua da.	3- La acera del ayuntamiento es estrecha.
1- Udaltzainen aldetik kontrol gehiago.	1- Mayor control por parte de los Municip.
2- Atez atekoa herrian jarri aurretik herritarrei galdetzea eta erabakitzea.	2- Antes de poner el puerta a puerta preguntar a los ciudadanos/as.
3- Zuhaitz arteko aparkamenduak berreskuratu.	3- Recuperar los aparcamientos que había entre los árboles.
1- Baxuak pintadaz beteak daude.	1- Los bajos están llenos de pintadas.
2- Oinezkoentzat bidea Bugatiko buelta	2- Camino peatonal para dar la vuelta de Bugati.

emateko.	
3-Baxuetan, Ola kalean portaleetako atea puskatuta daude.	3-En los bajos, por el lado de Ola kalea los cristales de las puertas están rotas.
ATSOBAKAR-URBARTE	ATSOBAKAR-URBARTE
1-Txakur kakak.	1-Problema de los excrementos de los perros.
2-Ikastolako sarrera irteeretan kotxeen ataskuak.	2-Atascos con los coches en las entradas y salidas de los colegios.
3-Baxuetan garbiketa eskasa.	3-La limpieza de los bajos es escasa.
1-Errotonda ondoan zebrabide bat jartzea.	1-Poner un paso de cebra al lado de la rotonda.
2-Kiroldegia txikia eta zaharkitua dago.	2-El polideportivo ha quedado anticuado.
3-Auzoko zebrabideetako puntu beltzak desagerrarazi.	3-Hay muchos puntos negros en los pasos de cebra del barrio.
1-Luzuriagako gasei soluzioa eman.	1-Dar solución a los gases de Luzuriaga.
2-Garbigune bat jarri.	2-Poner un "Garbigune".
3-Haurren jolasak baxuetan erregulatu.	3-Regular los juegos de los niños en los bajos.
SASOETA-LOIDIBARREN	SASOETA-LOIDIBARREN
1-Txakur kakak.	1-Problema de los excrementos de los perros.
2-Igogailua jendeak gaizki zaintzen du(sua eman, zikindu...).	2-La gente cuida mal el ascensor (lo quema, lo ensucia...).
3-Bajuetako eta terrazetako garbiketa.	3-Limpieza de los bajos y terrazas.
1-Noiz botako dira baxuak?	1-Cuando se van ha echar los bajos?
2-Udaltzaingoaren presentzia handiagoa.	2-Mayor presencia de los municipales.
3-Aparcamentu falta.	3-Falta de aparcamientos.
1-Lan komunitarioak egin behar dituzten pertsonak (kaleak garbitzen...) izatea.	1-Las personas que tengan que hacer trabajos comunitarios que sea (limpiando calles...).
2-Euskotreneko zebrabideko badenak igo.	2-Subir los badenes de la rotonda Euskotren.
3-Txintxarri elebiduna.	3-Txintxarri en bilingüe.
ERDIGUNEA	CENTRO
1-Txakurra Sotuta eta kaken arazoa.	1-Llevar los perros atados y mirar el problema de los excrementos de los perros.
2-Birziklatzeko ontziak urrun uzten dira eta gurgildun aulkiarekin iristea ezinezkoa da	2-El contenedor de reciclaje lo dejan muy separado de la acera y es imposible llegar con la silla de ruedas.
3-Herriko azokari leku egokiagoa eman.	3-Mejorar el sitio del mercado del pueblo.
1-Atez atekoa ez bada jartzen, horren ordez beste zerbait planteatzea gehiago birziklatu ahal izateko.	1-Si no se pone el puerta a puerta, plantear otra alternativa.
2-Komun publikoak erdigunean.	2-Baños públicos en el centro.
3-Udal atzeko esplanadan aterpeak, gune berdeak...	3-En el parque de detrás del ayuntamiento poner una zona cubierta, zona verde...
1-Anbulatorio zaharra zegoen lekua aprobetxatzea.(Parking bezala...).	1-Aprovechar el espacio del antiguo ambulatorio.(como Parking...).
2-Autobus publikoetako malda askotan apurtuta dago gurgildun aulkiarekin ibiltzea ezinezkoa.	2-La rampa de los autobuses muchas veces no funciona (no se puede acceder con silla de ruedas).
3-Herriko langabetuen lan poltsa bat sortu.	3-Crear una bolsa de trabajo de parados del pueblo.

- Auzoetan komunean ateratako lehentasunak
-

Auzo ezberdinetan komunean atera diren lehentasunak.	Prioridades en común de los barrios.
Auzoko garbiketa.	Limpieza del barrio.
Hiribusaren zerbitzua.	Servicio del autobús urbano.
Txakur kaken arazoari soluzioa ematea.	Problemática de los excrementos de los perros.
Leku edo plaza bat aterpearekin.	Poner una plaza o un lugar cubierto.
Aparkamendu gabezia.	Falta de aparcamientos.
Udaltzainen aldetik kontrol gehiago.	Mayor control por parte de los Municip.
Nieko pantailen luzapena.	Poner en más sitio pantallas de la NI.
Ospitaleetako geltokia herrian zehar jartzea.	Poner parada de los Hospitales por el pueblo.
Baxuetako egoerak erregulatu (pintada, haurren jolasak...).	Regular la situación de los bajos (pintadas, los juegos de los niños ...)

Bigarren bilera erronda hauetan ere, bileretan banatutako balorazio orrietan oinarrিত, hurbildu diren auzotarren iritzia positiboa dela esan dezakegu



AURRERA BEGIRA

Gaurtik hasi eta udara bitartean, auzoz auzoko prozesu honekin jarraituz, eta herritarrek jarri dituzten lehentasunak kontutan izanda, departamentu ezberdinekin bilduko gara eta parte-hartze prozesuak jarriko dira martxan udala eta herritarren artean.

Prozesu hauetan ateratako ideiak kontutan izanda, departamentu ezberdinek alde teknikoa burutuko dute, arazo bakoitzari konponbide egoki bat emanaz.

Ondorioz sortutako proiektu gauzatu ahal izateko behar duten aurrekontuarekin batera, 3. bilera aurkeztuko dira eta erabakitze sistemaren aurkezpena ere egingo da. Modu honetan, herritarrek erabakiko dute zein proiektu eramango diren aurrera.

Bestetik, arlokako parte-hartze prozesua hasiko da, hau da, herriko hainbat eremuetara iritsi nahirik martxan jarriko den prozesua. Bilerak egingo dira bai migrazio eta jatorri aniztasunaren inguruan, kirol arloan,...etb

Honez gain hilabete honetan inauterietako 4. bilera egingo da, inauterietako balorazioa egiteko. Konpartsa bakoitzak bere memoriaren azalpena egingo du, nahi duenarentzat bilera irekia izango da. Herriko festak ere hemen ditugula ikusirik, egitarau bat adosteko Jaietan Blai!!!-ko 5. bilera ere egingo da.

Azkenik esan, bilera guzti hauek irekiak izango direla interesa duen oroentzat eta animatzeko, denon artean eraiki behar baitugu gure herria!!!

Apirilak 26 18:30etan Inauterietako 4.bilera - Balorazioa
Maiatza hasieran egingo da deialdia Jaietan Blai San Pedro jaietako programa burutzeko.